

SEGMENTAZIOA

Enpresa bat martxan jartzeko garaian, berebiziko garrantzia hartzen du bezeroak nortzuk izango diren zehazteak. Gu gazteak izanda, gazteon beharrak asetzeko zerbitzu bat eskaini nahi dugu. Hori horrela, Errenteriako adin txikiko nerabeetan jarri dugu arreta-fokua; izan ere, gazteengan pentsatuz sortutako zerbitzu bat izantea gustatuko litzaiguke. Gure arreta-fokua oso zehaztua izanagatik, adin tarte honetan dauden perfilak oso ezberdinak direnez, guztioi zuzendutako zerbitzua eskaini nahi dugu, hau da, guztien beharrak kontuan hartu nahi ditugu denon premiak asetzeko helburuarekin.

Hasteko, badakigu adinez txikiegiak direnek, hain zuzen ere, hamairu urtetik berakoek, ezingo dutela zerbitzu hau erabili, ez baita haientzako egokituta egongo, oraindik ere askok ez dutelako beharrezko erantzukizun edo ardua horrelako leku batean zaintza gabe egoteko. Horrez gain, hemezortzi urtetik gorakoek beste hainbat aukera badituztenez, haientzat beharrezkoa ez den zerbitzu bat dela iruditzen zaigu; besteak beste, tabernetara joateko aukera dute eta. Bestalde, hasiera batean Errenteriako gazteei zuzenduta izango den arren, lortutako emaitzen arabera etorkizunean inguruko beste herri batzuetara zabaltzeko aukera ikusten dugu. Ikusten dugulako adin tarte horretako gazte guztiek konpartitzen dituztela behar berdinak eta beraz beste herri batzuetan ere arrakasta izan dezakeela.

Ezaugarri orokorrei erreparatuz, gure xede-publikoak denbora luzea pasatzen du lagunekin, baina gaitasun ekonomiko urria du. Gainera, ez dute mugikortasun aukera handirik, garraio falta dela eta, beraz, ezin dira inguruko eremuetara erraztasunez mugitu, nahiz eta hauek gertu egon. Adibidez, Garberara joatea erabakitzen duen kuadrilla batek, nahiz eta autobus zerbitzua eduki bertara iristeko, zerbitzu hori oso mugatuta dago. Hori horrela izanik, herrian denbora luzea pasa behar izaten dute, eta gaur egun gure herrian, zoritxarrez, aisialdiaz gozatzeko zailtasun ugari daude.

Esan bezala, adin tartearen barruan perfil oso desberdinak aurki ditzazkegu. Esaterako, baliteke batzuek lagunekin bideo kontsoletara jolasteko beharra izatea, beste

batzuek aldiz, taldean ikastolako lanak egiteko, edo beste batzuen kasuan, soilik deskonektatzeko.

Arazo bera duten kontsumitzaile talde batean zentratu gara, nahiz eta talde horren barruan ondoren behar desberdinagoak egon daitezken. Arazo nagusia leku falta da, eta perfil desberdinak dauden horretan, bakoitzak bere behar propioak asetzeko premia du eta gu premia ezberdin horiek guztiak asetzen saiatuko gara. Horregatik, merkatu moten inguruan arituz, zalantzarik gabe segmentatutako merkatuaren parte gara

Gure helburua, lokalak ahalik eta jende gehienari iristea izango litzateke, beti ere adolezentei zuzenduta, gure xede-publikoa dira eta.

Azken Aldia